



## Ustezko aurrerakoiak Kopenhagen eta Washingtonen

**S**ei hilabete garbi geratu da Joe Bidenen administrazioak kanpo esku-hartze handiagoa izango duela Donald Trumpekin baino. Biden demokraten tradizio inperialistaren bertsio klasikoa da. Aurreko presidentea bezala, hau ere aho bero bat da eta horregatik, diplomazia arloan aspaldian egin diren adierazpen baldarrenak burutu zituen Vladimir Putin hiltzailea zela esanez. Baina ez denez Trump ez da ezer gertatzen.

Hemeroteka zabala dugu Bidenen adierazpenekin herriak estigmatizatuz edo barrezka esplikatzuz nola eman dituen aginduak beste herrialde batzuetako agintariek bere nahiak bete ditzaten bere interes pertsonal ustelen mesedetan. Bidenen familia inguratzen duen nazioarteko influentzia trafiko kasuei buruz datu objektiboak daude, nahiz eta AEBko presidentek Trumpek egiten zuen bezala *fake news*-ak direla errepikatuz ezkatu nahi dituen. Halere, bien artean bada diferentzia handi bat: Bidenen kontrako informazioak isilarazten saiatu dira hedabide eta sare sozial nagusiak une oro.

Edward Snowdenek filtraturiko dokumentazioari esker dakigu NSA 2012an munduko komunikazioak era masiboan zelatzen zituela: herritarrenak, etsaienak eta aliatuenak ere bai. Biden Obama administrazioiko presidenteordea zen orduan. Besteak beste, aurrean jakin dugu Angela Merkel zelata-

Danimarkak historia inperialista luzea du eta honen gainbeherarekin batera anglosaxoien, eta bereziki AEBen, aliatu hertsia bilakatu zen Eskandinavian

tzeko NSAak Danimarkako inteligentzia zerbitzuaren lankidetzat izan zuela 2012 eta 2014 artean, Kopenhagen ezker agintzen zuen garaian.

Danimarkak historia inperialista luzea du eta honen gainbeherarekin batera anglosaxoien, eta bereziki AEBen, aliatu hertsia bilakatu zen Eskandinavian. Horregatik, daniar gobernuak beti dago prest herrialdeak bonbardatzeko eta inbaditzeko, nazioarteko legedia hautsiz ere bai, 2003an Iraken bezala. Industria kulturala ez da atzean geratzen, Borgen telesail arrakastatsuen esku-hartze inperialista humanitarioaren doktrinaren pilulak ematen dizkigu, ahaztu gabe NATOK begitan hartuta dituen etsaien kontrako ipar amerikar estiloko propaganda zatarrak.

Halere, hedabideek Danimarkaz nagusiki ondo hitz egiten dute bere ongizate estatu sendoari esker. Hau egia bada



ASIER BLAS MENDOZA  
EHU-KO IRAKASLEA

ere, kontutan izan behar da, alde batetik, bere aberastasunaren jatorriaren parte bat kapitalismo zentralerako potentzia inperialista eta kolonialista gisa lortu duela eta, bestaldetik, errefuxiatuekiko eta etorkinekiko duen politika oso oldarkorra dela.

Europar herrialde batzuk oso estigmatizatuak izan dira beraien herrialdeetara joan nahi ez duten baina Mendebaldeko bidean harrapatuta geratzen diren etorkinekin eta errefuxiatuekin duten jarreragatik. Ez da kasualitatea estatu horiek dituzten posizio geopolitikoak ez izatea NATOK hertsiki bultzatzen dituenak; Danimarka aldiz, aliantza atlantiarrak eta interes estatubatuarak dituzten esentziekin oso lotuta dagoenez, ez dago lerrobururik Danimarkako gobernu ezkeriarrek errefuxiatu eta etorkinen kontra duen politika oldarkorraz, Europar Batasuneko gogorrena seguruenik.

Gauzak ez dira oso desberdinak AEBetan. Orain Biden dagoela presidentetzan, migrazio politika ez da aldatu. Areago, Guatemalan Kamala Harris presidente ordeak etorkinei zuzendutako mezu batean esan zien "ez etortzeko" AEBetara eta Biden administrazioak akordioak iragarri zituen Mexiko, Guatemala eta Hondurasekin mugetan tropa militar kopurua handitzeko etorkinen bidaiak oztopatu asmoz. Baina ez da ezer gertatzen, aurrerakoiak omen daude eta Kopenhagen eta Washingtonen. ●